



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2019ko ekainaren 25ean, arratsaldeko 19:00tan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ZINEGOTZIAREN JABETZA HARTUKO AURREKO EGIAZTAPENAK

Udaleko idazkariak zinegotzi hautetsiaren nortasuna frogatzeko agiriak irakurri ditu, haiek egiaztatuz, eta zinegotziak bere nortasuna frogatu du.

Jarraian, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, 75.7 artikuluan aipatzen diren adierazpenak egin dituela egiaztatu da, eta adierazpenaren ondoren sortutako bateraezintasunen bat ote duen galdetu da zinegotzi hautetsiari; haren aldetik ez da halakorik baieztatu.

Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 195.4 artikulua, eta Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, 37.4 artikulua eskatutakoa betetzen dela ikusita, Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 108.8 artikuluan aurreikusitako lege-eskakizuna —zin egitearena— betetzeari ekin zaio.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ andreak onartu egin du zinegotzi izendapena. Hortaz, Udalbatzaren aurrean, zin egin du kargua beteko duela, horrek dakartzan betebeharrak guztiekin.

HIRUGARRENA. ALKATE ORDEEN IZENDAPENA

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duenak, bere 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkateari dagokio, Alkate Ordeak izendatzea.

Horren arabera, ERABAKI DUT:

1.- Lizartzako Udaleko Alkate ordeak, izendatzea:

- 1.- JONE ZUBELDIA ALTUNA
- 2.- ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

2.- Izendatutakoari dagokio ordezkapena egitea Alkatea ez dagoenean, edo eta gaixo edo oztoporik badu bere funtzioak betetzeko; baita ere, Alkate berriak jabetza hartzen duen bitartean, kasua balitz.

3.- Ebazpen hau, interesatuei jakineraziko zaie, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuaz, eta ospatuko den hurrengo Batzar Nagusiari jakinerazpena eginaz.

LAUGARRENA. UDALBATZA ZENBATERO BATZARTUKO DEN ERABAKITZEA

2019ko maiatzaren 26an ospatutako hauteskundeak direla eta, 2019ko ekainaren 25ean ospatutako bilkura berezian, Udal berria osaturik, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatza zenbatero batzartuko den erabaki behar da.

Apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkeran, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 a) artikulua, herriko biztanlegoaren arabera, Udal Batzarrak ospatzeko gutxiengo aldikakotasuna ezartzen du; biztanlegoa 615 biztanle izanik, Udal Batzarrak gutxienez hiru hilabetean behin egitea bidezkoa da.

Guizti horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenaren 38.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

artikuluak xedatutakoaren arabera, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 a) artikuluak ezartzen dituen gutxiengo aldizkakotasuna kontuan izanik, Alkatetzak, zera proposatzen du:

ERABAKIA

LEHENENGO.- Udalaren Bilkura Nagusiak, Udaletxeko Areto Nagusian, hiru hilero ospatzea, ezartzea.

BIGARREN.- Alkateari ahalmenak ematea, justifikatutako arrazoiengatik, Bilkura Nagusiko egunak aldatzeko.

BOSGARRENA.- UDALAREN ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDALAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA

2019ko maiatzaren 26an ospatutako hauteskundeak direla eta, 2019ko ekainaren 25ean ospatutako bilkura berezian, Udal berria osaturik, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa ikusten da, Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea egoki ikusten da.

Guzti horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako UEAF legearen 38., 123tik 127ra eta 134tik 138 bitarteko artikuluak xedatutakoaren arabera, Alkatetzak, zera proposatzen dio Udal Batzarrari:

ERABAKIA

LEHENA.- Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea:

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA
GIPUZKOAKO URAK	ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA JONE ZUBELDIA ALTUNA
TOLOSALDEA GARATZEN	XABINO SAN SEBASTIAN MURUA ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

TOLOMENDI	IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA
EUSKAL FONDOA	JONE ZUBELDIA ALTUNA ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ
UEMA	ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ IRAIZ OLAETXEA BALERDI
GIPUZKOAKO BASO ELKARTEA	AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
UDALBILTZA	IRAIZ OLAETXEA BALERDI JONE ZUBELDIA ALTUNA
HAURRESKOLA PARTZUERGOA	ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ JONE ZUBELDIA ALTUNA
HILTEGI AMANKOMUNATUA	IRAIZ OLAETXEA BALERDI AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA
EUDEL	JONE ZUBELDIA ALTUNA ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

SEIGARRENA.- BATZORDEAK ERATU ETA SORTZEA

2019ko maiatzaren 26an ospatutako hauteskondeak direla eta, 2019ko ekainaren 25ean ospatutako bilkura berezian, Udal berria osaturik, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa ikusten da, Udal honetako eta izaera iraunkorra izango duten, batzordeak eratu, osatu eta funtzionamendu erregimena ezartzea.

Berari dagozkion funtzioak, hauek dira: Udal Batzarrera eramango diren gaien ikerketa, txostena edo kontsultak egitea, premiazkoak diren erabakiak onartu behar direnetan ezik.

UEAF legearen 125 eta 124.2 artikuluek xedatutakoaren arabera, Udal Batzarrari dagokio, Alkate-Udalburuaren proposamenaren arabera, zenbat eta zein izen izango duten proposatzea.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Guzti horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako UEAF legearen 38., 123tik 127ra eta 134tik 138 bitarteko artikulua xedatutakoaren arabera, Alkatetzak, zera proposatzen dio Udal Batzarrari:

ERABAKIA

LEHENA.- Izaera iraunkorra izango duten, zerrendatzen diren informazio-batzordeak eratzea.

BIGARREN.- Batzordeen funtzioak, hauek izango dira: Udal Batzarrera eramango diren gaien ikerketa, txostena luzatzea, premiazkoak diren erabakiak onartu behar direnetan ezik.

HIRUGARREN.- Batzordeak kide hauekin osatuko dira:

HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA AZPIEGITURAK	IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN XABINO SAN SEBASTIAN MURUA AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA JONE ZUBELDIA ALTUNA ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA
GIZARTE ZERBITZUAK - BERDINTASUNA	JONE ZUBELDIA ALTUNA IRAIZ OLAETXEA BALERDI ITIZAR SAENZ DE OJER MARTINEZ
OGASUNA - KONTU BATZORDE BEREZIA	ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA JONE ZUBELDIA ALTUNA IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
KULTURA, GAZTERIA, KIROLA, HEZKUNTZA, EUSKARA	ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ IRAIZ OLAETXEA BALERDI AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA
INDUSTRIA, KOMERTZIOA, EKONOMIA,	XABINO SAN SEBASTIAN MURUA ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
INFORMAZIOA-KOMUNIKAZIOA	IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

ZAZPIGARRENA.- EGUNGO DIRUZAINA BALIOGABETZE ETA ONDORENGOAREN IZENDAPENA

2016ko irailaren 27ko Udal Batzarraren erabakiz, Ogasuneko Diruzaina, Lizartzako udal ordezkari zen Aitziber Abasolo de la Peña andrea izendatzea erabaki zela ikusi ondoren.

Ikusita irailaren 11ko 10/2015 Erret Dekretu Legearen 3. artikulua eta Idazkari-kontu hartzaileak eginiko txostena.

Udal ordezkari guztien adostasunez, honakoa

ERABAKITZEN DA:

Lehena.- 2019ko ekainaren 25eko Udal Batzarraren erabakiz, Ogauneko Diruzain, Aitziber Abasolo de la Peña andrearen izendapena bertan behera uztea, 2019ko ekainaren 25eko eragin datarekin.

Bigarrena.- Lizartzako Udaleko Ogasuneko Diruzain funtzio edo eginkizunak, Idazkari-Kontu hartzaile lanpostuari atxikitzea, 2019ko ekainaren 26ko datatik aurrera eraginez.

Hirugarrena.- Kutxabank eta Laboral Kutxa erakundeei jakinaraztea, dokumentuak, sartze gakoak, sinadurak eta informatika bidezko komunikaziorako tresnak formalizatzeko, Lizartzako Udaleko kontuetako kobrantza eta ordainketak inolako trabarik gabe egin daitezen.

ZORTZIGARRENA.- BESTELAKORIK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzietan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia